

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Lasa Auzmendi

*Oiartzun,
Gipuzkoa
(1920)*

Aurkibidea



Biografia



Beasainen jaio zen Joxe. Aita Beasaingo Olea baserrikoa zen eta ama Ataungoa. 1924an, Joxek lau urte zituela, Oiartzungo Audele baserrira aldatu zuen bizitokia familia osoak. "Duquesa de las Torres" zen baserriaren jabea; jabea hil zenean baserria hustu behar izan zuten. Eskola bat baino gehiagotan ibili zen, Mendizarren, Txaparren, mojekin eta Beheko Plazako Eskola Publikoan ere bai. Eskola utzi eta denbora gutxira soldaduskara joan behar izan zuen, eta lau urtetik gora egin zituen. Soldaduskara joaterako Errenteria-Oreretako Papeleran hasia zen lanean eta bertan aritu zen berrogei urtetik gora, jubilatu arte. Kontxi Ralla errenteriarrarekin ezkondu zen eta Arraguan jarri ziren bizitzen, bertan lursaila erosi eta etxetxoa egina baitzuen Joxek. Artean autopista egin gabea zen eta errepide berria egin behar zutela-eta lur zati bat saldu behar izan zuten. Beti bizi izan dira berak eraikitako etxetxoan, Arraguan. Hiru alaba izan zituzten.

Zintak

OIA-089

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-06-11
- **Iraupena:** 117 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com